



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

“Euskal antzerkiaren funtsak liburutegi eta artxibategietan”

2014ko Azaroak 20, osteguna.

Koldo Mitxelena Liburutegiaren egoitza, Donostia.

Goizeko 10:30ean



Euskal Kultur Erakundea.

Pantxoa Etchegoin.

Euskal Kultur Erakundeko antzerki artxiboak

Uztaritzen kokatzen den Euskal Kultur Erakundean dauden antzerki artxiboak, «Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea – EATB» Iparraldeko Adarrak bildu zituenak dira.

Historia pixka bat:

Antzerkia egituratu eta bultzatu nahiz, jokalaria batzuek sortu zuten 1967an «Antzerkilarien Biltzarra» elkarte, lau helburu hauekin :

- Urtero antzerki berri bat aurkeztu,
- Lapurdiko eta Baxenabarreko 7-8 taldeak lagundu,
- Hegoaldeko taldeekin harremanetan sartu,
- Artxibategia eraiki.

Hamar urteren buruan, 1977an, Urnietan, 200 antzezle elkartu ziren eta Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea – EATB elkarteari eman zioten sorrera.

Orduz geroz, mugaz bi aldeekok elkarrekin lan egin zuten eta 1982an, Euskal Herriaren batasunaren izenean, «Antzerkilarien Biltzarra» bilakatu zen EATB Iparraldeko adarra. Izen bera zuten, baina lege aldetik bi elkarte ezberdin ziren, bakoitza bere autonomiarekin, diru laguntzak lortzeko, etb.

Artxibategia:

Hasiera hartan, antzerki testuen biltzeaz eta prentsa agirien zaintzeaz, gehienik arduratu zen Daniel Landart. Jakinik Mayie Choribit hazpandarrak, Janamari Malharin andereak eta «Eskualdun Gazteria» kristau gazteen elkarteak antzerki obrak bazeuzkatela, haietarik eskuratu zituen ale zenbait.

Geroago, 1981ean, Heletako auzapezak onartu zuen EATB Iparraldeko adarraren egoitza soziala udaletxean izan zedin. Hitzarmen bat izenpeturik, artxibategi txikia baita jokalarien jantziak bertan ezarri zituzten.

Frantses Gobernuak, 1982an, eman diru laguntza bati esker, pertsona gazte batek, urte batez, EATBrentzat lan egin zuen idazkari gisa, batez ere artxibategia osatuz eta argazkiak bilduz.

Garai hartako dokumentuen arabera, 136 paperezko antzerki testu bazeuden Heletako udaletxean.

Gero, urteak jin, urteak joan, beste hameika kezkarik ezin buru eginez, eta aitor dezagun, elkartekide oso guti izanez, ez zen inor, zorigaitzez, artxibategiaz behar bezala arduratu.

Gehiago dena, taldeetako jokalariai zuzenean joaten ziren Heletako artxibategira, eta aldiro, bizpalau testu hartzen zituzten, hitzemanaz itzuliko zituztela, baina batzuen ezaxolkeriaz, asko antzerki testu desargertu dira.

Egoera deitoragarri hura ikusiz, EATBko azken arduradunek galdegin zioten Euskal Kultur Erakundeari artxibo haien bere gain hartzea. Eta beraz, 2008az geroztik, EKEN dauzkagu.

Gaur egun zer dagoen antzerki artxibategian

Paperezko testuetan **60 obra**. Idazle batzuren izenak, adibide bat emateko: Lafitte, Iratzeder, Dufau, Guilsou, Larzabal, Monzon, Landart, Etxaide, baina obra batzuk anonimoak dira, hain segur ere itzulpenak daitezke edo arramoldaketak.

Argazkiak, talde ezberdineko antzerkilari batzurenak,

Artikuluak, euskaraz eta frantsesez, *Herria*, *Herriz-Herri*, *Argia* astekarietan agertuak, baita *Basque-Éclair* eta *Sud-Ouest* kazetetan.

Zinta grabaketak eta **bideoak**, halaber Maite Barnetche zenak FR3 frantses telebistako 3. katearentzat egin bizpahiru emankizun.

Artxibo horietan daude ere garai hartako propaganda paperak, kartelak, eskuprogramak, 1984tik 1994 arte antolatu zuten Galarrotsak festivalaren egitarauak, etb.

Ahaztu gabe, EATB elkartearen administrazioko papereria nasaia.

=+=

Egia deblauki aitortzeko, dokumentu horiek guztiak nahas-mahas daude, eta norbaitek sailkatu eta txukundu behar lituzke.

Beste xehetasun batzuk...

Euskal Kultur Erakundean dauden artxiboez bestalde, non aurki ditzakegun antzerki testuak eta dokumentalak:

Gure Herria aldizkariak argitaratu zituen Jean Barbier, Léon Léon, Piarres Lafitte, Etienne Salaberry, Piarres Larzabal, Paul Guilsou apezten obra batzuk (1922 eta 1975 bitartean),

Elkar argialetxak Piarres Larzabalen **42 obra**, Piarres Xarriton euskaltzainak biduak. Lehen bi tomoak agertu ziren 1991ean, beste biak 1992an.

Monzonen obra osoa ere argitaratuta dago,

Egan aldizkariak, bere aldetik, Landarten hiru obra,

Eusko Jaurlaritzako **Antzerki Zerbitzuak** ere Iparraldeko idazleen lanak argitaratu zituen, hala nola: Landart, Guillaume Irigoyen, halaber Maitz argialetxeak ere aspaldian toki bat ematen die antzerki testuei.

Kutxak: Antton Luku, Pantzo Irigaray, Mattin Irigoyen, obra saristatuak.

Ikas Pedagogia Zerbitzuak haurrentzat idatzi antzerkiak badauzka, hala nola Kattalin Sallaberryrenak.

Bideo sailean **Aldudarrak Bideo sozietateak** antzerki asko grabatu ditu.

Zerrenda luzatzen ahal genuke...

Baina jakin behar dena, Eugenio Arozena Oiartzuarra aspaldian hasia dela, Iparraldeko dokumentuen grabatzen eta disitalizatzen. Hark dauka, gaur egun, altxorrik osatuena.

Daniel Landart, bere aldetik, ikerketa lan baten bukatzen ari da:
“Komediaz-komedia Lapurdin eta Baxenabarren”. Bi zati dauzka: *Herria* astekaria ikertuz (1945-1965) eta Oroitzapenak gogoratuz (1966-1995). Euskal antzerkiaren 50 urteko historia, xahetasun andana batekin.